

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### AMURRIOKO UDALA

#### **Behin betiko onartzea ur horniduraren tasa arautzen duen Udalaren 7. zerga ordenantzaren 1. eranskinaren aldaketa**

2016ko urriaren 27ko bilkuran Udalbatzak behin-behinean onartu zuen ur horniduraren tasa arautzen duen Udalaren 7. zerga ordenantzaren 1. eranskinaren aldaketa (espedientea: 16286C2274) eta 2016ko azaroaren 2an erabakia ALHAOn argitaratu zen (122. zenbakia). Erabaki horren kontra erreklamazioak aurkeztu ez denez gero horretarako ezarritako epealdian, behin betiko bihurtzen da, halaxe agintzen baitu martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak, toki ogasunak arautzen dituen legearen testu bateratua onartzen duenak, 17.3 artikuluan. Horrela, bada, jendaurrean jartzen da zerga ordenantza horren testu aldatua, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 70.2 artikuluan eta 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak, toki ogasunak arautzen dituen legearen testu bateratua onartzen duenak, 17.4 artikuluan ezartzen dutenaren ondorioetarako. Hona hemen testua hitzez hitz:

#### **7.1 ERANSKINA - EDATEKO URAREN HORNIDURAGATIK ETA HONDAKIN UREN SANEAMENDUAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK**

##### I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

#### **1. artikulua. Xedea**

Zerga ordenantza honen xedea da Amurrioko Udalak, zuzenean edo bitarteko entitate baten bidez, ematen dituen ur horniduraren zerbitzua eta hondakin uren saneamenduaren zerbitzua egiteagatik ordaindu beharreko tasak antolatzea eta arautzea, zerbitzuak egiteko modua gora-behera.

#### **2. artikulua. Oinarria**

Zerga ordenantza honen xede diren tasen konfigurazioaren oinarria uraren ziklo osoaren kontzeptua da, hau da, hiri inguruneetan uraren erabilerak berekin dakartzan prozesu eta jardueren multzoa: sare azpiegitura konplexua dago eta sare horretatik bideratzen da ura harguneetatik kontsumoguneetara, non "goi sareko" hornidurarako azpiegitura horrek bat egiten baitu ura altxatzeko, biltegitartzeko, edateko on bihurtzeko eta banatzeko instalazioekin; eta ez da ahaztu behar iturriko ur hori erabili eta gero saneamendu sareetan zehar bideratzen dela hondakin urak tratatzeko instalazioetara, atzera isuri baino lehen.

#### **3. artikulua. Ahalmenak eta eskumenak**

Amurrio udalerrian Amurrioko Udala da edateko uraren hornidura zerbitzuaren (bajan) eta hondakin uren saneamenduaren edo estolderia zerbitzuaren titularra.

#### **4. artikulua. Eremua**

Eremu subjektiboari dagokionez, ordenantza hau zerbitzu horien erabiltzaile guztiei aplikatuko zaie. Zerga ordenantza honen xede diren tasak eragiten dituzten zerbitzuak nola eman behar diren arautzen duten xedapenetan zehazten da nortzuk diren erabiltzaileak.

#### **5. artikulua. Tarifaren egitura**

1. Zerga ordenantza honen xede diren tasen tarifa egituraren oinarriak dira uraren ziklo osoaren kontzeptua eta berdintasunaren, ekitatearen, nahikotasunaren eta kostuak berreskuratzearen printzipioak.

2. Kostuak berreskuratzearen printzipioari jarraituz, tarifaren bidez kostu hauek estaliko dira: ingurumen kostuak, baliabidearen kostuak eta zerbitzuak kudeatzeko kostuak (finkoak zein aldakorrak). Zerbitzuak kudeatzeko kostuetan nahitaez sartu beharko dira: dauden azpiegituren amortizazioa; azpiegitura horiek ustiatzeko, babesteko eta mantentzeko gastuak; behar denean, haien bizitza erabilgarria amaitu aurretik ordeztu eta azpiegitura berriak jartzeko, zerbitzuen eraginkortasun ekonomikoa eta baliabidearen zentzuzko erabilera une oro mantentzeko eta ahal den neurrian hobetzeko, egin beharreko gastuak.

## II. KAPITULUA. ZERGA GAIA

### 6. artikulua. Zerga gaia, oro har

Oro har, zerga ordenantza honetan arautzen diren ordainarazpenen zerga gaiak Amurrioko herritarrentzat egiten diren uraren ziklo osoko jarduerak dira, hau da, ura bigarren mailako sarean hornitzea edo banatzea eta hondakin uren saneamendua eta arazketa. Ordenantza honetatik kanpo geratzen dira Amurrioko udalerriko administrazio batzarretako erabiltzaileak, ez baitituzte jasotzen Amurrioko Udalak egiten dituen zerbitzuak.

### 7. artikulua. Ur horniduraren tasa

Ur horniduraren tasaren zerga gaia da ur hornidurarako eta kontsumorako sareak erabili ahal izatea, lehen mailako saretik zuzenean edo bigarren mailako sareetatik, ur hornidurarako ahalezko edota benetako aukera horren arabera.

### 8. artikulua. Saneamenduaren tasa

Saneamenduaren tasaren zerga gaia da hornidura publikotik edo pribatutik datozen uren benetako edo ahalezko kontsumoa edota isurketa; izan ere, uraren ziklo osoa definitzen duten hainbat prozesuren arabera, hornitzen diren bolumenak behar bezala tratatu behar dira, eta eskatzen dute saneamenduko sistema publikoak eraiki, erabili eta zaintzea, hondakin uren edo lokatzen saneamendu sareen edo bildu eta tratatzeko sistema alternatiboen egungo edota programatutako erabilgarritasuna oinarritzat hartuta.

### 9. artikulua. Saneamenduaren tasa ordaindu behar ez den kasua

Saneamenduaren tasa ez da ordaindu behar Amurrioko isurketarako lekapena lortzen denean Amurrioko Udalak ezartzen dituen arauekin bat etorritz.

### 10. artikulua. Horniduraren eta saneamenduaren tasei lotutako erabilerak

#### A. Horniduraren tasa:

Uraren horniduraren eta banaketaren tasaren tarifak ezartzeko ura non kontsumitzen den hartzen da kontuan; horren arabera hornidura hauek bereizten dira:

a. Etxeko erabileretarako hornidura, hots, etxebizitzetan egiten dena, ez industria jarduerarik, ez merkataritza jarduerarik, ez lanbide jarduerarik egiten ez den etxebizitzetan, hain zuzen ere.

b. Abeltzaintzarako edota nekazaritzako jardueretarako hornidura.

c. Titulartasun publikoko kirol instalazioetarako hornidura.

d. Beste erabilera batzuetarako hornidurak, hau da, industriarako, merkataritzako eta zerbitzu establezimenduetarako eta erakunde erabileretarako hornidurak.

#### B. Saneamenduaren tasa.

Ez da erabilera bereizketarik ezartzen saneamenduaren tasaren tarifak aplikatzeko.

### 11. artikulua. Edateko uraren horniduraren zerbitzuan alta emateagatik ordaindu beharreko tasa

Zerbitzuan alta emateagatik ordaindu beharreko tasaren zerga gaia zerbitzua egiten duenak edateko uraren kontagailua ekartzea eta instalatzea da.

**12. artikulua. Edateko uraren horniduraren zerbitzuan baja emateagatik ordaindu beharreko tasa**

Zerbitzuan baja emateagatik ordaindu beharreko tasaren zerga gaia zerbitzua egiten duenak baja ematen zaion kontratuko kontagailua kentzea da.

## III. KAPITULUA. SUBJEKTU PASIBOAK

**13. artikulua. Subjektu pasiboak, oro har**

1. Oro har, zerga ordenantza honetan arautzen diren tasen kargapekoak dira uraren ziklo osoko zerbitzuen azken hartzaileak, zerbitzuaren araudian erabiltzaile gisa definitzen direnak.

2. Subjektu pasiboak dira, zergadun gisa, uraren ziklo osoko zerbitzuak, zerga ordenantza honen xede direnak, eskatzen dituzten pertsona fisiko eta juridikoak eta Arabako zergen Foru Arau Orokorreko 35.3 artikuluan aipatzen diren entitateak, edo zerbitzu horietatik onura ateratzen dutenak edo zerbitzu horiek eragiten dietenak.

3. Beste alde batetik, subjektu pasiboak dira, zergadunen ordezeko gisa, uraren ziklo osoko zerbitzuak, ordenantza honen xede direnak, egiten diren higiezinaren jabe diren pertsona fisikoak eta juridikoak eta Arabako zergen Foru Arau Orokorreko 35.3 artikuluan aipatzen diren entitateak, bai eta eraikitzaileak eta obren kontratistak ere, tasaren sortzapena obrak egiteari lotuta egonez gero.

4. Bai zergadunak bai zergadunaren ordezekoak tasa ordaindu behar dute zordun nagusi gisa. Zerga zorra tasaren likidazioa egiten eta bidaltzen zaion zergadunak ordaindu behar du, edo beraren ordezekoak, eskaera nork egin duen gorabehera (zergadunak edo ordezekoak).

**14. artikulua. Ur horniduraren tasa**

Ur horniduraren tasaren subjektu pasiboak dira:

1. Zergadun gisa, hornidura kontratuaren titularra edo eskatzailea, edo, bestela, hornidura jasotzen duen higiezinako legezko okupatzailea edo erabiltzailea.

2. Zergadunaren ordezeko gisa, hornidura kontratua lotzen zaion edo, bestela, hornidura egiten den higiezinaren jabea.

**15. artikulua. Saneamenduaren tasa**

Saneamenduaren tasaren subjektu pasiboak dira:

1. Zergadun gisa, hornidura kontratuaren titularra edo eskatzailea, edo, bestela, zerbitzu horren erabiltzailea, saneamendu sistemaren onuraduna den aldetik. Saneamendu zerbitzua banaka ematen bada, horretarako sinatutako kontratuaren titularra edo eskatzailea, edo kontratuari lotutako higiezinako erabiltzailea edo legezko okupatzailea.

2. Zergadunaren ordezeko gisa, ur hornidura lotzen zaion higiezinaren jabea, saneamendu sistemaren onuraduna den aldetik.

**16. artikulua. Edateko uraren horniduraren zerbitzuan alta emateagatik ordaindu beharreko tasa**

Edateko uraren horniduraren zerbitzuan alta emateagatik ordaindu beharreko tasaren subjektu pasiboak dira:

1. Zergadun gisa, altaren eskatzailea edo, bestela, kontagailuari dagokion zerbitzuaren kontratuaren titularra den erabiltzailea.

2. Zergadunaren ordezeko gisa, alta dagokion higiezinaren jabeak.

**17. artikulua. Edateko uraren horniduraren zerbitzuan baja emateagatik ordaindu beharreko tasa**

Edateko uraren horniduraren zerbitzuan baja emateagatik ordaindu beharreko tasaren subjektu pasiboak dira:

1. Zergadun gisa, bajaren eskatzailea edo, bestela, kontagailua dagokion zerbitzuaren kontratuaren titularra den erabiltzailea.
2. Zergadunaren ordezeko gisa, baja dagokion higiezinaren jabeak.

## IV. KAPITULUA. EZARPENAREN OINARRIAK

**18. artikulua. Zerga oinarri orokorra**

Zerga ordenantza honetan arautzen diren tasen zerga oinarriak hainbat parametroz osatuko dira; parametro horiek magnitudeak izango dira eta tarifak beren gainean aplikatuko dira, kapitulu honetako hurrengo artikuluetan azaltzen den bezala.

**19. artikulua. Ur horniduraren tasa (banaketa)**

1. Honako hauek dira zerga oinarria osatzen duten magnitudeak:
  - a. Ur horniduraren kontagailuaren kalibrea.
  - b. Kontsumoa kontagailu horrek kontrolatzen duela, hornidura jasotzen duten etxebizitzen, lokalen edo horiekin parekatutako erabileren kopurua.
  - c. Kontsumitutako ur bolumena, erabilerarekin edo xedearekin lotuta.
2. Ureztatze aho, ur hargune eta abarrekoetatik aldi baterako erabilera justifikatueterako ura kontsumitzen den kasuetan, hornidurak 6 hilabete baino gutxiago irauten badu, aurretiaz finkatutako eguneko bolumena aplikatuko da.
3. Banaketa tasak sortzen duen zerga kuota dela eta ordaindu beharreko zenbatekoa kalkulatzeko, tarifak zerga oinarria osatzen duten magnitudeei aplikatuko zaizkie.

Tarifa horiek binomikoak dira; hau da, tasa kalkulatzeko honako hauek batzen dira:

- a. Goren mugako zenbateko bat, kontagailuaren kalibrea erreferentzia duena, kontagailuak hornidura kontrolatzen dien etxebizitzen, lokalen edo parekatutako erabileren kopuruaz biderkatzearen emaitza.
- b. Zenbateko aldakor bat, ur kontsumoen arabera ezartzen dena, kontsumook tartetean zati-tuta; tarte horien zenbateko unitarioak hornidurari lotutako erabileren arabera berezita daude.

Hainbat erabiltzailek kontagailu orokor bat erabiltzen badute, guztirako kontsumoari haien tarifa epigrafearen bigarren tarterako ezarritako prezioa aplikatuko zaio.

**20. artikulua. Saneamenduaren tasa**

1. Honako hauek dira zerga oinarriko magnitudeak:
  - a. Ur isurketa potentzialaren bolumena.
  - b. Ur horniduraren kontagailuaren kalibrea edo, bestela, saneamenduko kontagailuarena.
2. Saneamenduaren tasak sortzen duen zerga kuota dela eta ordaindu beharreko zenbatekoa kalkulatzeko, tarifak zerga oinarria osatzen duten magnitudeei aplikatuko zaizkie.
3. Tarifa horiek binomikoak dira; hau da, tasa kalkulatzeko honako hauek batzen dira:
  - a. Goren mugako zenbateko bat, kontagailuaren kalibrea erreferentzia duena.
  - b. Zenbateko aldakor bat, bera hornidurari edo isurketari lotutako m<sup>3</sup> guztietarako.

**21. artikulua. Ur horniduraren tasa eta saneamenduaren tasa: egiaztapenaren ondoriozko likidazioa eta erregularizazioa kontagailuaren matxuragatik edo akatsagatik**

1. Kapitulu honetako aurreko artikuluetan ezartzen dena gorabehera, egiaztatzen bada kontagailuak beti funtzionatzen duela baimendutakotik gorako errore positiboarekin edo, oro har, kontagailuek errore edo matxuraren bat badute, tarifak aplikatu behar zaizkion magnitudean (zerga kuota zehazteko kontuan hartzen den magnitudea) kontagailu berria instalatu ondoko hogeita hamar egunetan kontagailu berriarekin egiten diren kontsumoak sartuko dira, eta berari aplikatuko zaizkio likidazioaldiko hiletan indarrean egon diren tarifak.

2. Atzeraeragineko aldi hori ezin da izan sei hilabete baino luzeagoa.

3. Halaber, saneamenduaren zerga oinarria hornidurako ur bolumenaren bidez zehazten den kasuetan ere aplikatuko da.

4. Inguruabarren batek eragozten badu isuritako emaria zuzenean zehaztea, zenbatespena egingo da, eta horretarako oinarritzat hartuko dira hornidura iturri guztietako kontsumoak, prozesuan erabilitako urak eta aurreko urteko uren balantzea; horrela zehaztuko dira isuritako urak.

**22. artikulua. Ur horniduraren tasa eta saneamenduaren tasa: ezusteko matxura barruko instalazioetan**

1. Egiaztatzen bada barruko instalazioetan ezkutuko matxuraren bat dagoela eta horrek erabiltzailearen ohiko kontsumoen bolumena aldatzen duela, batez besteko ohiko kontsumotik gorakoari tarifa epigrafeko bigarren tarterako ezarritako prezioa aplikatuko zaio.

Edonola ere, tasagatik ordaindu beharreko azken zenbatekoa ezin da izan egindako azken lau hiruhilekoetako likidazioetan ezarritako tasaren batez bestekoaren ehuneko 800 baino gehiago.

Likidazioaren zenbatekoa ehuneko 800era murrizteak ezkutuko jariora gertatu den hiruhilekoetako batean bakarrik sortuko ditu ondorioak.

Kontagailu orokorren kasuan, idatz zati honetan aipatzen den murrizketa matxura erkidegoaren instalazio orokorrean gertatzen denean bakarrik aplikatuko da.

2. Saneamenduaren tasaren kasuan, azken lau hiruhilekoetan egindako likidazioetan fakturatutako batez besteko bolumena bakarrik fakturatuko da.

**23. artikulua. Edateko uraren horniduraren zerbitzuan alta emateagatik ordaindu beharreko tasa**

1. Edateko uraren horniduraren zerbitzuan alta emateagatik ordaindu beharreko tarifa kontratatutako kontagailuaren kalibrearen arabera izango da.

2. Tarifak zerga ordenantza honen eranskinean zehazten dira, kontagailu motaren arabera xehatuta.

**24. artikulua. Edateko uraren horniduraren zerbitzuan baja emateagatik ordaindu beharreko tasa**

Edateko uraren horniduraren zerbitzuan baja emateagatik ordaindu beharreko tarifa goren mugako zenbatekoa izango da; zerga ordenantza honen eranskinean zehazten da.

**V. KAPITULUA. ZERGA KUOTA****25. artikulua. Zerga kuota**

1. Zerga ordenantza honetan arautzen den tasa bakoitzaren zerga kuota kalkulatzeko eragiketa hau egin behar da: tasaren ezarpen oinarria edo zerga oinarria definitzeko erabilitako magnitudeari ordenantza honen eranskinean ageri diren tarifa aplikatu (behar den kasuetan tarifa zuzenean aplikatuko da).

2. Behar den kasuetan, aurreko eragiketaren emaitzako zerga kuotari zeharkako zergak aplikatuko zaizkio (eta, zehazki, balio erantsiaren gaineko zerga), bidezko araudi aplikagarrian ezartzen denarekin bat etorritz.

## VI. KAPITULUA. TASEN APLIKAZIOA: KUDEAKETA, LIKIDAZIOA ETA BILKETA

### LEHENENGO ATALA. SORTZAPENA

#### **26. artikulua. Sortzapena, oro har**

1. Zerga ordenantza honetan arautzen diren tasak zerga gaia den jarduera hasten denean sortzen dira, eta orduantxe sortzen da zerga betebeharra ere.

2. Tasaren azken sortzapen egun zerbitzuaren baja formalizatzen den eguna izango da, baldin eta baja zerbitzuaren araudian ezartzen den bezala egiten bada, edo isurketarako lekapena formalizatzen den eguna.

#### **27. artikulua. Ur horniduraren tasa**

1. Ur horniduraren tasa horniduraren kontratua formalizatzen denean sortzen da, edo, bestela, hornidura hasten denean.

2. Behin hornidura ezarri eta hasiz gero, tasa egunero sortuko da, eta zergalditzat jotzen den aldiaren arabera likidatuko da.

#### **28. artikulua. Saneamenduaren tasa**

1. Saneamendu zerbitzua uraren banaketa zerbitzuaren osagarria denez, araudian ezartzen den bezala, beraren tasa zerbitzu kontratua formalizatzen denean edo, bestela, zerbitzua egiten denean sortzen da.

2. Saneamendu zerbitzua banaka emanez gero, zerbitzuaren araudian ezartzen den bezala, beraren tasa isurketarako baimena formalizatzen denean edo, bestela, isurketa egiten denean sortzen da.

3. Behin isurketa ezarri eta hasiz gero, tasa egunero sortuko da, eta zergalditzat jotzen den aldiaren arabera likidatuko da.

#### **29. artikulua. Edateko uraren horniduraren zerbitzuan alta emateagatik ordaindu beharreko tasa**

Hornidura zerbitzuan alta emateari lotutako lanen tasa lanok egiten direnean sortuko da.

#### **30. artikulua. Edateko uraren horniduraren zerbitzuan baja emateagatik ordaindu beharreko tasa**

Hornidura zerbitzuan baja emateari lotutako lanen tasa lanok egiten direnean sortuko da.

### BIGARREN ATALA. ZERGALDIA

#### **31. artikulua. Zergaldia, aldi behin sortzen diren tasetan**

1. Aldian behin sortzen diren tasen zergaldia kasuan kasuko zerga oinarria osatzen duen magnitudea ebaluatzeko metodoari egokituko zaio, hau da, kontsumoa edo isurketa neurgailu egokiaren bidez kuantifikatzeko metodoari.

2. Horretarako, fakturazioa hogeita hamar (30) eta ehun eta hogeita (120) egun bitarteko aldie-tan egingo zaie bigarren lehen mailako sareko hornidura jasotzen dutenei. Ahal dela, zergaldia hiruhilekoari hurbildu edo doituko zaio.

#### **32. artikulua. Zergaldia, aldi behin sortzen ez diren tasetan**

Aldian behin sortzen ez diren tasak, hau da, hornidura zerbitzuan alta eta baja emateagatik ordaindu beharreko tasak, sortzen diren unean likidatuko dira.

**33. artikulua. Tarifen hainbanaketa**

Zergaldi batean tarifen zenbatekoa aldatzen bada, tasen kuota kalkulatzeko biderketa hau egingo da: zerga oinarritzat definitutako magnitudearen eguneko batez bestekoa bider tarifa indarrean egondako egunen kopurua.

*HIRUGARREN ATALA. ZERGA KUDEAKETAKO JARDUKETAK ETA PROZEDURAK*

**34. artikulua. Tasen likidazioa**

1. Zerga ordenantza honetan arautzen diren tasen likidazioa zenbatespen metodoaren arabera egiten bada, zerbitzuaren araudian zehazten den bezala, behin-behinekoa izango da, hau da, kontagailuaren egiazko irakurketa lortzen den hurrengo zergaldietako emaitzen konturakoa, harik eta preskribatu arte.

2. Artikulu honetako aurreko idatz zatian ezartzen dena gorabehera, likidazio guztiak zerga oinarrian gertatzen diren aldaketak kontuan hartuz egingo dira.

3. Zerbitzua zerga oinarritzat jotzen den bolumen, emari edo bestelako magnitude finko baten arabera edo denbora unitateko kantitate jakin baten arabera kontratatzen bada, beraren araudian ezartzen denarekin bat etorritik, haren ondorioz sortzen diren tasak alde zuzenetik likidatuko dira.

**35. artikulua. Baterako kudeaketa**

Zerga ordenantza honetan arautzen diren tasak batera likidatu eta bildu ahal izango dira, baldin eta zergaldi bera badute. Horretarako euskarri dokumental bat bakarri erabiliko da; izan ere, bertan bilduko dira tasa guztiak, kontzeptu bakoitzaren oinarriak eta tarifak bereizita, likidazioak bereiz egingo baitira. Kontzeptu bakoitzari dagozkion kuotak bereizita agertu behar dira; horien guztien batura baterako kuota izango da, eta dokumentu bakar baten bidez ordainaraziko da.

**36. artikulua. Betebehar formalak**

Zerga ordenantza honetako III. kapituluaren aipatzen diren tasak ordaindu behar dituzten subjektu pasiboek alta eta baja adierazpenak egin beharko dituzte, zerbitzuaren araudian ezartzen den bezala eta gainerako xedapen aplikagarrietan ezartzen denarekin bat etorritik, eta horrez gainera zerga ordenantza honetan arautzen diren tasen kudeaketan, likidazioan eta bilketan eragina duten datu formaletan gertatzen diren aldaketa guztien berri eman beharko dute (aldaketen berri ez emateak edo gaizki jakinarazteak sortzen dituen ondorioen erantzuleak izango dira).

*LAUGARREN ATALA. BILKETAKO JARDUKETAK ETA PROZEDURA*

**37. artikulua. Tasak norberaren borondatez ordaintzeko aldia**

Zerga ordenantza honetan arautzen diren tasa guztiak likidazioa jakinarazten denetik hogeita hamar egun pasatu baino lehen ordaindu behar dira.

**38. artikulua. Ordainarazteko aldia**

Tasa aurreko artikuluan ezartzen den aldia ordaintzen ez bada, hau da, norberaren borondatez ordaintzeko aldia, ordainarazteko aldia hasiko da eta premiamendu bidez ordainaraziko da.

**39. artikulua. Ordaintzeko moduak**

1. Ordenantza honetan arautzen diren zerbitzuen tasen ondoriozko zerga zorrak honela ordaindu ahal izango dira:

- a. Banku entitate edo aurrezki kutxa batean helbideratu.
- b. Dirua sartu zerbitzua egiten duenaren banku kontuan, zerga likidazioa zehaztuta.
- c. Legez onartutako beste edozein bide erabili.

2. Likidazioa eskudirutan ordaintzeko eskatu ahal izango da kasu hauetan:

- a. Azken likidazioa egiten denean horniduraren baja eskatu ondoren.
- b. Likidazioa norberaren borondatezko ordaintzeko alditik kanpo ordaintzen denean.

## VII. KAPITULUA. ZEHATZEKO AHALA

### LEHEN ATALA. ZERGA ARLOKO ARAU HAUSTEAK

#### 40. artikulua. Kontzeptua

Zerga arloko arau haustetzat joko dira Arabako Zergen Foru Arau Orokorrean eta gainerako xedapen aplikagarrietan halakotzat jotzen eta zehapena ezartzen zaien dolozko edo erruzko egintzak eta ez-egiteak, zabarkeria maila guztietakoak, ordenantza honetan ezartzen dena gorabehera.

#### 41. artikulua. Motak

Zerga arloko arau hausteak dira:

1. Arabako Zergen Foru Arau Orokorrean ezartzen direnak.
2. Hornitu edo isuritako uraren bolumena kontrolatzeko behar diren elementuak ezkutatzea zerbitzua egiten duenari.
3. Kontsumo edo erabilera klandestinoak. Kontsumo edo erabilera klandestinotzat joko da zerbitzuak erabiltzea alde aurretik zerbitzua kontratatu gabe edo isurtzeko baimena eskuratu gabe, zerbitzuak arautzen dituzten ordenantzetako arauari edo aplikatu beharreko beste edozein arauri jarraituz.
4. Zerbitzuaren ordenantzan eta araudian ezartzen diren betebeharrak ez betetzea tasa ordainarazteko erabiltzen den magnitudearen egiazko kopurua ezkutatzeko.

### BIGARREN ATALA. ZEHAPENAK ETA NEURRI GEHIGARRIAK

#### 42. artikulua. Araubide juridikoa

Zerga arloko arau hausteen zehapenak Arabako Zergen Foru Arau Orokorrean ezartzen denarekin bat etorritik ezarriko dira.

Zehapenak ezartzeko foru arau horretan ezartzen den prozedura aplikatuko da.

#### 43. artikulua. Neurri gehigarriak

Iruzurra egiten bada instalazioak manipulatu, isurketarako baimena edota uraren hornidura etengo da harik eta instalazioak lehen bezala utzi eta eragindako gastuak likidatu arte, zerbitzuaren araudian ezartzen den bezala.

#### 44. artikulua. Iruzuraren bolumena zenbatestea

1. Iruzuraren ezaugarriak direla eta ezin bada zehaztu zenbat ur kontsumitu edo isuri den iruzur eginda, zenbatespen irizpide hauek aplikatuko dira tarifak ordainarazteko eta zehapenak ezartzeko:

- a. Uraren hornidura (banaketa sarea) edota saneamenduaren erabiltzaileak:
  - a.i. Etxeko erabilerak eta titulartasun publikoko kirol instalazioetakoak: berrogeita hamar metro kubiko (50 m<sup>3</sup>) hiruhilekoan, arau hausteak iraun duen aldian, preskripzioaldia amaitu arte.
  - a.ii. Obretarako hornidura: 100 m<sup>3</sup> (ehun metro kubiko) hiruhilekoan, arau hausteak iraun duen aldian.
  - a.iii. Industriako erabiltzaileak, merkataritza eta zerbitzu establezimenduak, nekazaritzako jarduerak, foru egoitzak, autonomia erkidegoarenak eta Estatuko Administrazioarenak, erakunde autonomoak, etxeko ur beroaren instalazio zentralizatuak, suteetako ur harguneak, eta aurreko



epigrafeetan sartu gabeko beste edozein hornidura: ehun metro kubiko (100 m<sup>3</sup>) hiruhilekoan, arau hausteak iraun duen aldian, preskripzioaldia amaitu arte.

b. Saneamenduaren etxeko erabiltzaileak, baliabide propioak dituztenak: 20 m<sup>3</sup>-ko (hogei metro kubiko) ur isurketa hiruhilekoan, arau hausteak iraun duen aldian, preskripzioaldia amaitu arte.

c. Saneamenduaren gainerako erabiltzaileak, baliabide propioak dituztenak: 100 m<sup>3</sup>-ko (ehun metro kubiko) ur isurketa hiruhilekoan, arau hausteak iraun duen aldian, preskripzioaldia amaitu arte.

2. Aurreko paragrafoan adierazten diren kontsumoak gainditu direla pentsatzekoa den kasuetan, tasa ordainarazteko eta zehapena ezartzeko oinarria honako hau izango da: kontagailu berria instalatu eta hurrengo hiru hiletako eguneko kontsumoa edota horren zenbatespena, arau haustea egin den aldiari aplikatuta, preskripzioaldia amaitu arte.

#### **45. artikulua. Lehengoratzea eta kalte ordaina ematea**

Zehapen prozeduraren ondorioz egotz litekeen administrazio erantzukizunaz gainera, arau hausteak eraldatu duen egoera lehengoratzeko eskatu ahalko zaie erantzuleei, bai eta arau hausteak eragindako kalte eta galeren ordaina emateko ere.

#### **46. artikulua. Zehapenak etetea**

Zerga arloko zehapenen betearazpena automatikoki etengo da, bermerik jarri beharrik gabe, zehapenen kontra bidezko errekurtsioa edo erreklamazio administratiboa aurkezten bada, behar den moduan eta epean. Zehapenak ezingo dira betearazi administrazio bidean irmoak izan arte.

### **VIII. KAPITULUA. BERRIKUSPEN PROZEDURAK**

#### **47. artikulua. Sarrera**

Zerga ordenantza honetan arautzen diren tasak aplikatzeko eta zerga arloko zehapenak ezartzeko egintzak eta jarduketak berrikusi ahal izango dira, indarreko xedapen aplikagarrietan ezarritakoaren arabera. Ezin izango dira inola ere berrikusi epai judizial irmoaren bidez berretsitako administrazio egintzak.

#### **48. artikulua. Berrikuspenarako prozedura bereziak**

Zerga ordenantza honetan arautzen diren tasak direla eta zerga arloan ematen diren egintzak berrikusteko prozedura bereziak, hala nola egintza erabat deusezak berrikusteko prozedurak, egintza deuseztagarriak kaltegarri deklaratzekoak, tasak aplikatzeko eta zehapenak ezartzeko egintzak baliogabetzekoak, bidegabeko diru sarrerak itzultzekoak eta oker materialak edo egitatezkoak zuzentzekoak, Arabako toki ogasunen Foru Arauan, Zergen Foru Arau Orokorrean eta aplikatu beharreko gainerako xedapen indardunetan ezartzen denaren bidez arautuko dira.

#### **49. artikulua. Berraztertze errekurtsioa**

1. Zerga ordenantza honetan arautzen diren tasen aplikaziorako eta eraginkortasunerako onartzen diren egintzen aurka berraztertze errekurtsioa jarri ahal izango da egintza onartu duen organoaren aurrean, eta horretarako epealdia hilabetekoa izango da egintza jakinarazten denetik. Errekurtsio horri Toki Ogasunen Foru Arauan eta indarreko gainerako xedapen aplikagarrietan ezartzen dena aplikatuko zaio.

2. Berraztertze errekurtsioaren ebazpenaren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa jarri ahal izango da, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duen legerian ezartzen den bezala.

### **AZKEN XEDAPENA**

Ordenantza hau behin betiko argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

**I. ERANSKINA****2016-2019 ALDIAN APLIKATUKO DIRENTASAK****BANAKETA:**

Hiru hilean behingo kuota finkoa, kontagailuaren diametroaren arabera (euroak):

Mota guztietako erabilerak

DIAMETROA	2016	2017	2018	2019
13 milimetro	4,50	4,93	5,36	5,79
20 milimetro	7,65	8,38	9,11	9,84
25 milimetro	10,35	11,34	12,33	13,32
30 milimetro	14,85	16,27	17,69	19,11
40 milimetro	28,13	30,81	33,50	36,19
50 milimetro	42,75	46,84	50,92	55,01
65 milimetro	56,25	61,63	67,00	72,38
80 milimetro	70,88	77,65	84,42	91,19
100 milimetro	97,88	107,23	116,58	125,93

Kontsumoaren arabera kuota aldakorra (euroak metro kubikoko):

Etxeko erabilera:

TARTEA	2016	2017	2018	2019
20 metro kubiko edo gutxiago	0,25	0,25	0,25	0,25
21 - 50 metro kubiko	0,50	0,50	0,50	0,50
51 metro kubiko baino gehiago	1,80	1,80	1,80	1,80

Abeltzaintzako erabilera:

2016	2017	2018	2019
0,92	0,92	0,92	0,92

Titulartasun publikoko kirol instalazioak:

2016	2017	2018	2019
0,50	0,50	0,50	0,50

Beste erabilera batzuk:

TARTEA	2016	2017	2018	2019
30 metro kubiko edo gutxiago	0,70	0,70	0,70	0,70
31 - 100 metro kubiko	0,92	0,92	0,92	0,92
101 - 240 metro kubiko	1,57	1,57	1,57	1,57
241 metro kubiko baino gehiago	2,16	2,16	2,16	2,16

**SANEAMENDUA:**

Hiru hilean behingo kuota finkoa, kontagailuaren diametroaren arabera (euroak):

Mota guztietako erabilerak

DIAMETROA	2016	2017	2018	2019
13 milimetro	5,50	6,00	6,50	7,00
20 milimetro	9,35	10,20	11,05	11,90

DIAMETROA	2016	2017	2018	2019
25 milimetro	12,65	13,80	14,95	16,10
30 milimetro	18,15	19,80	21,45	23,10
40 milimetro	34,38	37,50	40,63	43,75
50 milimetro	52,25	57,00	61,75	66,50
65 milimetro	68,75	75,00	81,25	87,50
80 milimetro	86,63	94,50	102,38	110,25
100 milimetro	119,63	130,50	141,38	152,25

Kontsumoaren araberako kuota aldakorra (euroak metro kubikoko):

Mota guztietako erabilerak

2016	2017	2018	2019
0,31	0,38	0,46	0,51

#### EDATEKO URAREN HORNIDURAREN ZERBITZUAN ALTA EMATEGATIK ORDAINDU BEHARREKO KUOTA

Kontagailuaren diametroaren araberako kuota finkoa:

Mota guztietako erabilerak

DIAMETROA	TARIFA (EUROAK)
13 - 15 milimetro	103,47
20 milimetro	122,56
25 milimetro	202,67
30 milimetro	273,30
40 milimetro	387,72
50 milimetro	417,63
65 milimetro	457,50
80 milimetro	481,80
100 milimetro	564,42

#### EDATEKO URAREN HORNIDURAREN ZERBITZUAN BAJA EMATEGATIK ORDAINDU BEHARREKO KUOTA

Kuota finkoa (kontagailuaren kalibrea gorabehera):

Mota guztietako erabilerak

TARIFA (EUROAK)
45,80

#### XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Ordenantza hau indarrean jartzeak aurreko 7.1 eranskinean eta 7.3 eranskinean ezarritako tarifa indargabetzen du.

Amurrio, 2016ko abenduaren 20a

*Alkatea*

**JOSUNE IRABIEN MARIGORTA**